# 2022-2023ko Zumediaren Eskolaz Kanpoko Ekintzak

Astelehenetik ostegunera 15.40etatik 16.30etara
Ikasturte osorako aurreikusitako prezioa: 85€ jarduera bakoitzeko, LEGO izan ezik: 224€.
Azaroan ordainketa bakarra eginen da.
Jarduera bakoitzeko 10 izen-emate behar dira.

HAUR HEZKUNTZA: Izan artista, Dantzarekin jolasean, Kirol anitza eta Jarduera anitza.
LEHEN HEZKUNTZA: Yoga, Zirkoa, LEGOko tailerra, Kirol anitza, Xakea eta Zinema-tailerra (hirugarrenetik aurrera).

## Izan artista

Haur hezkuntzako haurrekin arte plastikoen munduan murgilduko gara modu esperimentalean, psikomotrizitate fin, sormena esta irudimena landuz. Honetarako eskulanak, margoketa esperimentala, akuarelak, abstrakzioa, bolumena eta abar lantzeko ekintzak burutuko ditugu.





## Dantzarekin jolasean

Euskal dantzak ikasiko dituzte, haien garapen fasea kontutan hartuta, adin honetan jolasak duen garrantzia ahaztu gabe. Beroketak eta erritmo jolasak egingo dituzte baita euskal dantzak ikasi ere.

## Jarduera anitza



Jarduera honetan haurrek antzerkiarekin, eskulanekin, musikarekin, dantzarekin eta ipuinekin esperimentatu ahal izango dute.

## Kirol anitza

Jolasen bidez, haurrak hainbat kirol praktikatzen hasiko dira, saskibaloia eta eskubaloia, besteak beste



## Xakea

Xakeaz gozatzea eta zaletzea du helburu nagusia. Taularen geografia hobetzen ikasiko dute, diagonalak eta sektoreak ezagutuko dituzte, baita piezak eta hasierako jokaldi batzuk ere.



## LEGOko tailerra

Modu gidatuan eta librean, eraikuntza sortzailea Legoko piezekin. Bertan, gai desberdinak landuz, eraikuntza-teknikak proposatuko dira.





## Zirkoa

Ekintza honetan zirkoko hainbat tekina eta disziplinena ikasko ditugu.
Malabareak, akrobaziak, dantzak,... beti ere jolas, sormena eta partehartzearen bidez.

## Zinema-tailerra



Zinemako jardueren eta antzerki-jokoen bidez, haurrek beren adierazpen-gaitasunak aztertu ahal izango dituzte, eta zentzumenekin, irudimenarekin eta sormenarekin esperimentatuko dute.

## Yoga

Yogaren bitartez haurrek euren arnasketa lantzen dute eta lasaitzen ikasiko dute.



www.zumedia.org